

## ARRAINAK BAINERAN

### Aldapa

Umetan etxera eroaten ninduan aldapa  
leundu egin da.  
Belarrietarainoko barandilea  
belaunetan gelditzen jata gaurko takoiekaz.  
Amaren ordeztatik ekartzen eustan otartekoa astelehenetan  
eta garrasi egiten neutson,  
ez nebala nahi bera nire bila etortzerik.  
*Esker txarreko ume madarikatua,*  
*zuk ez badozu gura*  
*farola gaineko kalatxori moko luzeek jango dabe*  
*amumak zuretzat jarritako ogitartekoa*  
eta atzamarrarekin airea apurtzen eban.  
Irrikaz irensten neban orduan.  
Ze gozoa zan besterik ez dot gogoan,  
umetako haserreak bezainbeste.

### Zapata gorriak

Egurrezko zueko gorriak erosi eustazan amak sei urtegaz  
*amapolak bezain gorriak* esan eustan izeko zapatariak  
eta harro joan nintzan ikastolara  
gelako zapata politenekaz aringa-aringa.  
Baina irrist egin neban martitzen hartako bidean  
aldapan behera jausi  
eta letagina apurtu.  
Amak zapata barriak non nebazan galdetu eustanean  
nire oin biluziek erantzun eutsen.  
Ez neban ahorik zabaldu astebetean.  
Amumaren ogitartekoak kalatxorientzat.

## Eguastena

Eguastenak gona eskozesa janzteko eguna;  
 Gona gorria eta leotardo txuriak.  
*ez dot leopardoak jantzi gure*  
 eta txiza-erreka pantorrila guriak berotzen  
 amak leopardoak erantzi arte.

## Itxas karakola

Marinelak itsas karakola  
 oparitu eutsan alabari eguen ilunabar batean  
*Orru egiten dau aitte,*  
*neuri egiten al deusta orru?*  
 Ez, zuri ez alabatxua.  
*Zeini orduan? Zergatik? Zertarako?*  
 Bere baitan daroan itsasoari egiten deutsa  
 behin erauzi eben sorterra hurbil eta urrunari.  
*Eta zuk, aitatxo, zergatik eiten dozu orru?*

## Orrazten

Amak arraintxo laranjei jaten ematen eutsen bitartean  
 aulkia ezkaratz erdi-erdian ipini dau neskatoak:  
 luzea dau ilajea, aitaren itsasaldiak bezainbat,  
 adatseko korapiloak kentzen deutsaz amak bariku arrastietan  
*Ama, aittak arrain handixak ekarriko deuskuz*  
*Ama, noiz dator aitta etxera bueltan?*  
 Arrainontziak gainez egin dau  
 arraintxo laranja bi amaren begietan.  
*Ama, min eiten dostazu.*

*Leire Bilbao*